



**Arartekoaren Ebazpena, 2011ko azaroaren 24koa. Horren bidez, Lapuebla de Labarcan hirigintzako legezketasunaren inguruko arau-haustearen ondotik jarritako salaketari erantzunik ez ematearen inguruan mahaigaineratutako kexa-espediente bat amaitzen da.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek erakunde honetara jo du Lapuebla de Labarcako Udalak hirigintzako diziplina espedientea hasteko eskaera bati erantzunik eman ez diola jakinarazteko.

Erreklamazioak planteatzen zuen 2009ko abenduaren 4an udaleko esku-hartzea eskatu zuela (...)ren etorbideko (...). zk.n aurrera eramandako eraikuntza obren aurrean. Salaketa horretan aipatu zuen obrek, udaleko lizentzia baten babesean egindakoek, ez zituztela betetzen udaleko plangintzako arau subsidiarioen xedapenak. Zehazki, aipatu zuen eraikinaren eraikuntzak sestra-kotaren gaineko gehienezko altuera gainditu zuela eta ez zuela eraikuntzaren sekzio-motan ezarritako solairuen gehienezko kopurua betetzen.

2. Erreklamazio horri erantzunez, Arartekoak Lapuebla de Labarcako Udalarari aipatu espedientearen inguruan jarraitutako jardueri buruzko informazioa eskatu zion.

Lehenengo eskaera 2010eko maiatzaren 14an egin zen. Ondoren, 2010eko irailaren 1ean bidaltzeko eskatu zen. Erantzunik egon ezenez, 2011ko uztailaren 26ean udalari eskatutako informazioa bidaltzeko legezko betebeharraren berri eman zitzaion.

3. Azkenik 2011ko urriaren 28an, erakunde honek espediente honen gaineko alkatearen txosten bat jaso zuen. Idazki horretan udaleko aholkularitza teknikoak egindako txosten bat baino ez digu bidaltzen eta bertan aurkeztutako salaketa aztertzen da.

Txostena amaitzen da esanez ez dela hirigintzako araudiaren inguruko ez-beteterik antzematen eraikuntzaren gehienezko altuerari eta solairuen gehienezko kopuruari dagokienez. Hala, uste du gehienezko altuera zehazteko jatorrizko kota xehetasun-azterlanean aurreikusitakoa dela. Horrez gain, eraikitako eraikuntzak altuera kopuruaren inguruan xedatutako baldintzak betetzen dituela dio.

Hala ere, bidalitako informazioan ez daude jasota erreklamatzailerak egindako eskaerei erantzuna emateko jarraitu diren izapideekin zerikusia duten administrazio jardura gehiago.





Aurrekari horiek guztiak ikusirik, egokia iruditu zaigu aipatutako kexa-espeditari buruzko zenbait gogoeta helaraztea, zehazki, erreklamazioak hizpide duen gaiaren ingurukoak:

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dugu erakunde honen eskaera eta errekerimenduei erantzuna emateko Lapuebla de Labarcako Udalaren atzerapena.

Erakunde honek egindako eskaerei erantzuna ez emateak gure eskumenak garaiz eta modu eraginkorrean baliatzea eragotzi du, erantzuna jasotzea 16 hilabete baino gehiago luzatu baita.

Egoera horrek eta kexak hirigintzako legezkotasunaren arau-hauste baten ondotik bideratutako salaketari erantzunik eman ez izana hizpide zuela kontuan hartuta, aipatu gaia administrazio horren ustezko funtzionamendu eskatzat jo da, hain zuzen, herritarrek herri-administrazioekin dituzten harremanetan eta, baita, erakunde honekin dituzten harremanetan ere.

2. Halaber, adierazi behar da administrazio jarduerak txosten tekniko bat baino ez duela bildu eta, bertan, aurkeztutako salaketak baloratu ondoren, udalak dio ez duela antzeman udaleko hirigintzako araudia bete ez denik.

Erreklamatzailerak egindako eskaerak hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko neurriak har zitezten eskatu zuen eta, edozelan ere, horren inguruan hartutako neurrien berri eman ziezaioten eskatu zuen.

3. Herri-administrazioek interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berariazko erantzuna emateko duten betebeharra gogora ekarri behar dugu. Administrazioak behar bezala izapidetu behar ditu herritarrek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espeditatea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela. Izan ere, isiltasunak defentsarik gabeko egoeran uzten ditu herritarrak, ez baitakite administrazioak zein borondate duen haien eskaerei buruz eta ezin dute eskatutakoaren erantzuna berrikusi.

Herritar horien erreklamazioen aurrean instrukzioko izapide egokiak ez egitea eta administrazioaren erantzunik ez izatea ez da administrazioaren funtzionamendu normala, hortaz, Ararteko erakundeak hala adierazi behar du.





Espainiako Konstituzioak berak –103.1. eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua herritarrei ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen).

Aitzitik, artikulua horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea administrazio txartzat jo behar da eta administrazioaren jarduna zuzentzen duten printzipio orokorren ez-betetzearen adierazle da, kontuan hartuta jardun horrek, lege aginduz, herritarren zerbitzura egon behar duela (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa -HAAJAPEL-).

4. Erakunde honek aintzat hartu behar du hirigintzako salaketak, arlo horretako ekintza publikoa baliatzerakoan, administrazio espediente baten izapidea ekarri behar duela hirigintzako legeekin bat etorriz eta HAAJAPELen xedatutako arauari jarraiki.

Illo horretan, salatutako alderdiak baloratu ondoren, organo eskudunak dagokion hirigintzako diziplina espedientea abiarazi edo ez aintzat hartu behar du edo, bestela, eskatzailearen uzia gaitzesten duen ebazpenarekin amaitu.

Nolanahi ere, ekintza publikoa baliatzeak berekin dakar interesdunei udal esku-hartzearen artxibatzearen berri emateko betebeharra kasuan kasuko ekintzak eta baliabideak baliatzeak.

### Ondorioak

- Erakunde honek Lapuebla de Labarcako Udalaren lankidetzak eskasa salatuta behar du, 16 hilabete baino gehiago behar izan baititu eskatutako informazioa bidaltzeko eta, horrela jokaturik, Legebiltzarraren ordezkari garan aldetik daukagun eginkizuna modu eraginkorrean egitea galarazi digu.
- Aurkeztutako erreklamazioari dagokionez, Lapuebla de Labarcako Udalak, txosten teknikoak ikusirik, salaketari dagokion izapidea eman eta interesdunei ebazpena jakinarazi behar die, hirigintzako legeen arabera eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen xedatutako arauarekin bat etorriz.



